

HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

IRAKASLEA: Miren Artetxe Sarasola

DATA: 2022-04-01

AZALPENA:

Hiru astetan zehar hizkuntzaren inguruan aritu gara, sorkuntza eta adierazpide tresna dugun horri angulu ezberdinetatik begiratzeko asmoz. Lehen astean hizkuntzarekiko dugun harremanaz eta hizkuntza bidez garatutako harremanez aritu gara. Bigarren astean hizkuntzari buruz pentsatzen dugunaz eta hizkuntzaren bidez pentsa dezakegunaz. Hirugarren astean ahotsaz aritu gara, gure ahotsaren materialtasunaz, zein gure ahotsaz, ahotsa enuntziazio leku gisa ulertuta. Azken astean gure ahotsez geuk idatzitako hainbat testu grabatu genituen. Eta azken saioan Maielen Lujanbioren [rr] *marrak* emanaldiaz gozatu genuen. Azken emanaldi horren marrek, nolabait, ikastaroan zehar landutako gaiak zeharkatzen zituen, edo bestela esanda, landutako gaiak zeharkatzen zuten emanaldia.

I. ASTEA

Hizkuntza eta ni.
Zein harreman izan dut
zein hizkuntzarekin?

Zein hizkuntzatan izan dut
zein harreman?

II. ASTEA

Zer pentsatzen dut
hizkuntzaz/ez?

Zer pentsatzen dut
hizkuntzaren bidez?

III. ASTEA

Ahotsa gorputz.

Ahotsa
mintzaleku.

IV. ASTEA

Lanak osatu
[rr] marrak

AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

1. Saioa

Hizkuntza eta ni. Zein harreman izan dut zein hizkuntzarekin?

2. Saioa

Zein hizkuntzatan izan dut zein harreman?

3. Saioa

Zer pentsatzen dut hizkuntzaz/ez?

4. Saioa

Zer pentsatzen dut hizkuntzaren bidez?

5. Saioa

Tabakalerara bisita: *Une musique intérieure (Jokabidea, hizkuntza, ahotsa eta barne-entzumena)*

6. Saioa

Ahotsa gorputz, ahotsa mintzaleku

7. Saioa

Grabaketak Ander Mujikarekin

8. Saioa

[rr] marrak, Maialen Lujanbioren emanaldia

1. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

- **Aurkezpen dinamika:** ondokoa/kidea aurkeztu
- **Nola heldu naiz ni honaino?** Zuen hizkuntza ibilbideak marraztu.
 - A3 batean norbere hizkuntza-ibilbidea marraztu (5 puntu gutxienez)
 - Elkarrenak ikusteko tarte hartu
 - Elkarri kontatu

Idazteko tarte

Heldulekua:

Harkaitz Cano [[Hemen](#)]

“Azken aurreko manifestua” (Elgoibar, *Euskara ala ezkara* jardunaldiak, 2018)

2. Zatia: 7'30-17'

2. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

- **Hasiera jolasa:** begiak itxita, kideetako bat aurkitu eta ez askatu (honek beste bat aurkitu behar du: zirkuluan. Txartel bat eman bakoitzari)
- **Tertulia dialogikoa:** Vivir entre lenguas (Sylvia Molloy)

Idazteko tartea

1. Heldulekua:

Miss Karaoke [[Hemen](#)]

“Siempre quisiste que te llamara aitona y no fui capaz” 14’tik aurrera

2. Ixiar Rozas

EGUZKI BAT LURRAZPIAN

asko ulertzen dut
aitaren amak
amets batean hitz egiten zuela jakitean

gehiago oraindik
amaren aita
hitzen orde
bertsoak erabiltzen zituela entzutean

autoaren atzealdean
arduratsu txukuntzen zenituen mailetak
amesten jarraitzen zenuen bitartean

baztango harrian jiraka dabilen eguzki batek
hartzten du orain amets horren lekua
altzipres bustien eremuan

eguzkiak berotzen duenean
gogokoa dut harrian eseri
eta zurekin hitz egitea

baliteke berandu izatea ordea
eta ez dakit nire hizkuntza
lurpean ulertzen den

3. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

- **Zer pentsatzen dut nik nire hizkuntzez? Eta besteen hizkuntzez?**

Hizkuntza ezberdinak entzun, eta bakoitzari adjetiboak lotu, bere fonetikaren, intonazioaren, ezaugarri linguistikoen arabera.



- [Holandesa](#)
- [Alemana](#)
- [Italiera](#)
- [Frantsesa](#)
- [Urdua](#)
- [African click language](#)
- [Swahilia](#)
- [Mandarina](#)
- [Vietnamera](#)


- **Zer da hiztun on bat?**

- Gaztelaniazko hiztun on bat irudikatu. Zein ezaugarri ditu?
- [Metaplana](#)ren metodologia erabiliz ideiak antolatu
- Teoria pixka bat: Anonymity vs. Authenticity (Woolard)

- **Hizkuntza ezberdinak deskribatzen: badago arrazoi kulturalik horretarako?**

Berrartu aurreko adjektibo zerrenda: kulturekiko ditugun aurreiritziekin bat egiten dute hizkuntzarekiko ditugunekin?

- **Zer da hizkuntza bat eta zer ez?**



Saiatu definizio bat idazten, binaka.

Zein ezaugarri behar ditu, zerk definitzen du? Zerk bereizten du dialekto batetik?


Irizpideak baliogabetzen joan:

- Elkar-ulergarritasuna (portugesa/gaztelania, galiziera)
- Filiazioa? (Latinaren *alabak* hizkuntza ala dialekto?)
- Hitzun kopurua?

Sintaxia? (Dialektoek ere badute, eta serbokroata, hindia/urdua hizkuntza bera dira, sintaktikoki)

Irizpide baliagarri bakarra: Armada/politika (Max Weinrich)

- Zeintzuk dira gehien hitz egiten diren hizkuntzak? Euskara non legoke 1etik 10erako eskalan?



Euskara 1etik 10era 9an kokatuko litzateke, hitzun kopurua kontuan hartuta.

Hizkuntza txikia? Ala inguruko hizkuntzak erraldoiak?

4. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Semaforoaren jolasa: marra bat marraztu lurrean, galdera bat egin, eta alde daudenal alde baten jarri, kontra daudenak beste aldean. Elkarri geure iritzia iruzkatzeko azalpenak eman.

1. **Animaliek hizkuntza ikas dezakete? Badute haiek hizkuntzarik? Ala gizakion kontua da?**
2. **Hizkuntza elementu naturala ala kulturala da?**
3. **Hizkuntza ikasteko adin muga bat dago**

4. Lehenengo hizkuntza dator eta gero pentsamendua

5. Pentsa dezakegu hizkuntza gabe?

6. Hizkuntza guztietan berdin pentsatzen da?

Ondoren, interes/debate gehien piztu duten gaiei buruzko informazioa:

- **Hizkuntza gizakion elementu bereizgarria da/Animaliek hizkuntza ikas dezakete**
Gorila eta hizkuntza:
https://www.youtube.com/watch?v=R14gZe8TeJw&ab_channel=NationalGeographicEspa%C3%B1a

- **Hizkuntza naturala/kulturala:**
Gramatika unibertsala eta generatibismoa vs. konstruktibismoa
Generatibismoaren aldeko argudioak:

- Inputa ez aski
- Inputa ez zuzena
- Konputazionalki emulatu ezina
- Hizkuntza ezberdinetan etapa berak garai berean
- Hizkuntza tipologiaren mugatutasuna
- Adin kritikoa

Teoria konduktistak, XX. mendearen lehen erdian, haurrek imitazio-prozesu baten bidez hitz egiten ikasten dutela uste zuen, baina horrek ez du azaltzen haurrek perpaus guztiz berriak sortzeko duten trebetasuna, inoiz esan eta inoiz entzun ez dituzten esamoldeak.

Chomskyren ustez, elementu (hitz) kopuru mugatu batetik abiatuta egitura (perpaus) kopuru infinitu bat sortzeko trebetasunak esan nahi du giza garuna hizkuntza guztien azpian dagoen gramatika unibertsalaren arauekin programatuta dagoela, beraz, hizkuntza ez dago imitatzen ikastearen mende soilik.

- ***Feral children* delakoak eta *esperimentu debekatua*.**
Genie-ren kasua (nahi bada dokumentakla ikusi: 6')



- **Wittgenstein: “Nire hizkuntzaren mugak dira nire munduaren mugak”**

Tractatus Logico-Philosophicus-eko zita: «Die Grenzen meiner Sprache bedeuten die Grenzen meiner Welt»

"Teoria erregulatzailleak" azaltzen du ekintza eta pentsamendua pertsonaren hizkuntza-gaitasunaren arabera direla, Jean Piaget psikologo suitzarrak, teoria kognitiboak oso ezagunak dituenak, hizkuntza, neurri handi batean, ekintzaren eta pentsamenduaren garapenaren emaitza dela dioen bitartean, hitza eta ideia behatutako irudiak baitira, eta ez alderantziz. Baina ez dira falta norbanakoaren garapen intelektualean hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko erlazio dialektikoa dagoela diotenak. Beraz, galderari erantzutea, lehenik hizkuntza edo pentsamendua baldin badago, eta lehendabizi arrautza edo oiloa baldin badago, galderari erantzutea.



- **Sapir-Whorf hipotesia**

Sapir-Whorf hipotesia: ez badaukazu kontzeptua izendatzeko hitzik, ez duzu kontzeptua ulertzen (“hopi”-ek “denbora” esateko hitzik ez)

Ez da hipotesi zuzena.

Relatibismo linguistikoaz gehiago:

How language shapes the way we think | [Lera Boroditsky](#)

5. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Tabakalerara bisita:

Une musique intérieure (Jokabidea, hizkuntza, ahotsa eta barne-entzumena)

https://cms.tabakalera.eus/sites/default/files/2022-02/folletounemusique_eu.pdf

Une musique intérieure (Jokabidea, hizkuntza, ahotsa eta barne-entzumena) erakusketak zalantzan jartzen ditu gure jokabidea, gure hizkuntza eta gure ahotsa, barne-entzumenaren oreka edonork zalantzan jarriko lukeen bezala, hau da, kanpoko munduarekin dugun harreman intimoa egonkortzen duten tresna gisa duten zeregina jartzen du zalantzan.

Bi ahotsetan ariketa

Irakurri testu hau.

Irakurri poliki.

Entzun silaba bakoitza.

Noren ahotsez ari zara irakurtzen testua?

Zure ahotsa da? Beste norbaitena? Nirea? Nor naiz ni?

Emakume ahotsez irakurtzen ari zara? Gizon ahotsez? Ahots neutroz? Badago halakorik?

Saia zaitez hau bera ume baten ahotsez irakurtzen.

Saiatu zaitez.

Eta pentsa orain haur ahots honekin berriz Wittgensteini buruz eta bere Tractatus

Logico-Philosophicus-ari buruz hitz egiten dizudala.

Edo gizon ahotsez hitz egiten dizudala zona perianala depilatzeko teknikez.

[Joan zaizu haur ahotsa dagoeneko, ezta? Orain noren ahotsez ari zara?]

Irakurri testu hau zure ahots propioaz.

Alegia, erabaki zure buruan zein soinu duen zure ahots propioak.

Zein den zure ahotsetan propiotzat duzuna.

Zeren haserre zaudenean ahots bat daukazu eta persona zahar bati portaleko atea eutsi eta laguntza behar duen galdetzean bestea. Eta goizeko kafea baino lehen bat eta arratsaldeko zazpiretan bestea. Eta bankuko leihatilan kajeroak txartela jan dizula azaltzeko ahots bat erabiltzen duzu eta lagun bati parranda kontuak kontatzean bestea.

Masturbatu aurretik eta ondoren ere ez daukazu ahots bera.

Zenbat itzazu zure ahotsak. Zenbat ahots dira zureak?

Zenbat zarete zu?

Aukeratu itzazu bi.

Idatz ezazu testu labur bat horietako batean, eta beste bat bestean.

Edo sortu ezazu zuk ere instrukzioz beteriko testu bat, beste norbaitek zerbait sortu dezan.

- 6. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Berotze ariketa. Ahotsa askatu:

Gaur jaiki garenetik honaino iritsi arte egin duguna kontatu altuan denek batera **1'**

Ahotsa eta zaurgarritasuna. Gogoeta.

Hitz egitea ezinbestean da parekoari gu irakurtzeko tresnak ematea, guk erabat kontrolatu ezin ditzakegun moduan.

Ahotsaren bidez, adibidez. Hitz egitea beti da, neurri batean, biluztea. Ahotsak berak kontrolatu ezin dugun informazio asko eman dezake gure buruaz. Izan ere, ahotsa, bai hitzezkoa eta baita kantatua ere, ia gure gorputz guztiaren ekintza koordinatua da. Ahots edo arnas aparatua, digestio-egiturak, erresonantzia espazioak eta hainbat muskulu talde baliatzen ditu ahotsak gure hitzak proiektatzeko. Atal horietako batena ere ez da ahotsa sortzea bere funtzio primarioa, baina, elementu guzti horiei buruzko informazioa aurki omen daiteke gure ahotsean. Eta batez ere, gure ahotsa gure izaeraren zeinu ere bada. Jendea ahotsetik -ere- ezagutzen dugu: gure identitatearen bat-bateko adierazpena da ahotsa. Maurice Merleau-Ponty-ren hitzetan, gure gorputzarengandik bereizena da ahotsa: “ma voix est liée à la masse de ma vie comme ne l'est la voix de personne” (Merleau-Ponty, 1964: 187-188). Eta ahotsaren bidez, haragiaren bidez nola, besteekiko kontaktua dago. Kontaktua fisikoa nola, hitz egitea besteei gure ahotsa ukitzen uzteko testuingurua sortzea da, guk gure ahotsez ukituaz bat. Eta ukigarria dena zaurgarria ere bada. Eta jendaurrean hizketan aritzean zaurgarritasun sentipena oso presente dago norbere gorputzean. Isilik baino zaurgarriagoak gara. Edo beharbada zaurgarriago sentitzen gara.

Judith Butler-ek azpimarratu izan duen gisan, ez gara gorputz buruaskiak, aitzitik, gure ahotsak nola, “nuestros cuerpos son arrojados al mundo, expuestos a los demás” (Butler, 2014: 50 in Esteban, 2015: 86). Mari Luz Estebanek, hain zuzen, Ignacio Irazusta eta María Martínez-i lapurtzen dio zaurgarritasunaren definizioa: “rasgo antropológico de lo humano” gisa (Irazusta eta Martínez, 2014: 27). Eskerrak ahulak garen esatea, beraz, eskerrak pertsona garen esatea litzateke.

Zaurgarritasuna mundura irekitzeko modu bat da (Esteban, 2015: 86) -mundua gure baitan sartzeko modua den bezala-.

Hain zuzen ere, hitz egitean, permeable izatearen sentipena izan dezake batek.

Entzute aktiboaren ariketa

Binaka, lehenik batek, gero besteak, minutu batez, biz ala hiruz hitz egin. Besteak aktiboki aditu, isilik.

- Zure ahotsa entzun zenuen lehen aldia gogoan duzu? Zer iruditzen zaizu zure ahotsa? 1’
- Noren ahotsa da gogoratzen duzun lehen ahotsa? Noizkoa da? Nolakoa da? Zein bizipen lotzen dizkiozu? 2’
- Noizbait damutu zara hitz egin izanaz? Edo isildu izanaz? 3’
- Inoiz sentitu duzu zure ahotsak ez zuela balio? Edo beste norbaitenak baino gehiago balio zuela?

Nola sentitu gara?

Enuntziazio lekuaz: Nondik hitz egiten dut nik? Nondik hitz egin dezaket?

Like Totally Whatever - Melissa Lozada-Oliva [[Hemen](#)] 3’

Idazteko tartea

Asmatutako hitzekin/zentzua aldatutako hitzekin poema/istorio bat idatzi

Iturria:

El glíglico es un lenguaje creado por Julio Cortázar y presente en su novela Rayuela, cuyo capítulo 68, que evoca una escena erótica, está completamente escrito en él. Se trata de un lenguaje musical, creado por medio de jitanjáforas, que se interpreta como un juego, además de ser un lenguaje cabalístico, compartido por los enamorados, que los aísla del resto del mundo.

Apenas él le amalaba el noema, a ella se le agolpaba el clémiso y caían en hidromurias, en salvajes ambonios, en sustalos exasperantes. Cada vez que él procuraba relamar las incopelusas, se enredaba en un grimado quejumbroso y tenía que envulsionarse de cara al nóvalo, sintiendo cómo poco a poco las anillas se espejunaban, se iban apeltronando, reduplicmiendo, hasta quedar tendido como el trimalciato de ergomanina al que se le han dejado caer unas fíulas de cariaconcia. Y sin embargo era apenas el principio, porque en un momento dado ella se tordulaba los hurgalios, consintiendo en que él aproximara suavemente su orfelunios. Apenas se entreplumaban, algo como un ulucordio los encrestoriaba, los extrayuxtaba y paramovía, de pronto era el clinón, las esterfurosa convulcante de las mátricas, la jadehollante embocapluvia del orgumio, los esproemios del merpasmo en una sobrehumítica agopausa. ¡Evohé! ¡Evohé! Volposados en la cresta del murelio, se sentía balparamar, perlinos y márulos. Temblaba el troc, se vencían las marioplumas, y todo se resolviraba en un profundo pínice, en niolamas de argutendidas gasas, en carinias casi crueles que los ordopenaban hasta el límite de las gunfias.

Dialogo absurdo bidez egin ikastaro honen itxiera

Iturria:

Amaia Corral eta Oier Guillan [[Hemen](#)] 1'40-8'45 lehen zatia (dialogo absurdoa) eta bigarren zatia (normaz sasi-saiakera) 8'45- **10'**

- 7. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Gure testuen grabaketak Ander Mujikarekin.
Emaiza, [hemen](#).

Bidalitako adibidea I: [Hedoi Etxarte](#)

Bidalitako adibidea II: [Bizitza Happening](#)

8. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).



BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

[Saioen azalpenean linkak, wetransferrez materiala.]

